


aek
18.korrika

EMAN
EUSKARA
ELKARRI

UNITATE DIDAKTIKOA
10-12 URTE

SARRERA OROKORRA

HELBURUA:
Euskararen erabilera sustatzea eta indartzea. Helburu berarekin lanean diharduen AEK-k antolatutako KORRIKA ekimenaren zergatiaz eta beharraz ohartzea.

IRAUPENA:
KORRIKA 18 martxoaren 14an hasiko da Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean eta martxoaren 25ean amaituko da Baionan.
KORRIKA kanpainak bi asteko iraupena izango du (11 egun eta aurre-prestaketa). Betiere, irakasleen esku geratuko da kanpaina bete-betean jarraitzea edo egun gutxiagotan burutzea.

PROZEDURA:
Bi asteko proposamena da hau, baina ez da ahaztu behar malgutasun osoa dagoela unitatea erabiltzeko garaian, jarduerak solteak baitira. Horrela, beraz, norberaren gustura antola daiteke lanketa.
Jarduera bakoitza garatzeko zenbat egun edo saio erabili behar diren jakiteko gomendioa ere bertan duzue.
Proposatzen diren jarduerak ez dira soilik Euskara-arloan egiteko. Euskararen normalizazioa edozein jakintza-arlotako irakasleen ardura ere badenez, ikastetxeko irakasle eta gainerako hezitzaileen esku-hartzea oso garrantzizkoa izango da helburuak lortzeko garaian.

EGITURA:
Unitatea adinaren arabera antolatuta dago.
Adin-tarte bakoitzari egokia zaion lanketa proposatzen da.
- Haur Hezkuntza (Hegoaldean) eta Ama Eskolan (Iparraldean) lantzekoa.
- 6-8 urtekoekin lantzekoa. (LHko 1.zikloa)
- 8-10 urtekoekin lantzekoa. (LHko 2.zikloa).
- 10-12 urtekoekin lantzekoa. (LHko 3.zikloa).
- 12-18 urtekoekin lantzekoa. (DBH eta DBHO)

KIDETZE-PLANA:
Plangintza honek ikasle helduak eta gazteagoak kidetzeko proposamena egiten digu. Ikasle helduenak gaztetxoengana joango dira ipuina lantzera.
Ipuina kontatzeko garaian, hain zuzen, ikasle helduagoak ipuin-kontalari eta antzezle bihurtuko ditugu.

Kidetzearen helburuak honako hauek dira:
- Elkarrekintzaren bitartez ikasle txiki eta nagusien euskara-erabileran eragitea.
- Ikastetxearen hizkuntz normalizazioan ikasle nagusiak subjektu aktiboak izatea eta ez hartzaile pasibo huts; horretarako ikasle helduenen protagonismoa bultzatzen da.
- Ikasle nagusiek ardurak eta konpromisoak har ditzaten bultzatzea.
- Ekintza honen bidez motibazioa indartzea, batez ere, ikasle nagusiekin.
- Ahozkotasunaren lanketan jardutea. Kontuan hartu unitatea adinen arabera banatu dugula, baina asmoa ez dela, inondik inora, bakoitza bere jardunean ibiltzea besteenaz ohartu barik. Zilegi da ekintza elkarrekin egitea; kidetzea da horren adibide bat. Amaiera-ekitaldian zein sarrera-irteeretan antola daitezkeen ekintza osagarri guztiak, beraz, ikastetxe osoari zuzendutakoak izan daitezen ahalegintzea komeni da.

EGILEA
Eider Andrés Tejedor

KOORDINAZIOA
Kristina Boan
(Euskal Herriko Ikastolak)

ESKER BEREZIAK
Itxaropena Ikastola,
Belen Baztarrika, Iker Torres,
Arrate Andrés, Esteban Agirre eta
Martin Etxeberriari.

DISEINUA
di-da zure balioen marka

IRAKASLEARENTZAKO ORIENTABIDEAK

ZER DA IRAKASLEAK UNITATE DIDAKTIKOAN AURKI DEZAKEENA?

SARRERA-GIDA

Atal honetan lanerako proposatutako material guztiaren aurkezpena egiten zaio irakasleari: lanaren helburu orokorrak, jarduerak, iraupena, lanerako prozedurak eta antolaketa-egitura.

ETAPAREN BEREZITASUNEN ARABERAKO ZIKLOKAKO PROPOSAMENA

Etapako berezitasunak kontuan hartuta, ziklokako planteamendua proposatzen zaio irakasleari; horretarako, adin-tarteari dagozkion jarduera esanguratsuenak hautatu dira. Irakasleek egunerokoan lantzen dutenaren osagarri izan nahi du unitate didaktikoak.

Ziklo bakoitzean egitura berbera jarraitzen da: lehenik, lan-eskema aurkezten da, inplikatzen duen jarduerarekin lotura eginez (taula-formatuan). Eskemak ziklo horretarako proposatutako lanaren berri ematen du: jarduerak eta horien helburu zehatzak, jardueren deskribapena eta denboralizazioa. Bigarrenik, proposatutako jarduerak agertzen dira. Jarduera horietan ez da soilik tutorea edota hizkuntz irakaslea inplikatzea bilatzen, beste diziplina-arloak lantzen dituztenak ere parte-hartzaile bihurtu nahi dira: musika-irakaslea, plastika arloko irakaslea...

HAUR HEZKUNTZARI dagokionez, ipuina bilakatzen dugu ardatz. Jarduna emankorra suerta dakigun, ipuina lantzeko baliatzen dugun metodologia izango da gakoa. Ez dauka zentzurik umeak entzule huts izatea; ipuinaren dramatizazioaren bitartez, ipuinaren protagonista bihurtu behar ditugu, ipuina eta horrek helarazi nahi duen mezua bere egin ditzatela; horretarako, gure lana ulermen eta elkarrizketara bideratuko dugu. Ipuinaren istorioak eta ipuinaren pertsonaia nagusia den Labezomorroff pertsonaiak euskara ingurukoei eman dakiekeela erakusten dute.

Hala ere, ez da hausnarketarik lortuko ikasleek ipuina entzun-ikusi hutsaz; ezinbestekoa da gaia galdera itxien bidez bideratzea, irakaslea moderatzaile bihurtzea.

LEHEN HEZKUNTZARI dagokionez, hiru zikloetako bakoitzerako unitate didaktiko bana proposatzen da. Jarduera gehienak nahiko antzekoak diren arren, badira aldatzen direnak.

- Lehen zikloan (6-8 urte) esaterako, oraindik ipuinetik eratorritako jarduerak izango dira nagusi. Jarduera horien bitartez, umeek ahozko adierazpena landu dezatela bilatu nahi da, deskribapenak eginez, elkarrizketatxoak bideratuz... Ipuinaren kontaketan laguntzeko, koloreztatutako ilustrazioak erabiliko dira.

- Bigarren zikloan (8-10 urte) ipuinarekin lanean jarraituko dute ikasleek, ipuinaren ilustrazioak margotzen eta ipuinaren pertsonaia nagusia den Labezomorroff bera sortzen. Sintesirako eta deskribapenerako gaitasuna lantzeko aukera izango da.

- Hirugarren zikloan (10-12 urte) ipuinaren kontaketarako, kidetzeari loturiko plangintza-estrategia sustatu nahi genuke. Ikasle helduak (12-18) ipuin-kontalari bihurtuko dira, haur gazteagoei Labezomorroffen bizipenak kontatzeko. Era berean, ikaslearen adina

IRAKASLEARENTZAKO ORIENTABIDEAK

ZER DA IRAKASLEAK UNITATE DIDAKTIKOAN AURKI DEZAKEENA?

kontuan hartuta, ikaslearen atxikimendua sustatu nahi da euskararen erabilerarekiko konpromisoa bilatuz. Adin honetan euskararen dekalogoa egiteko eskatuko zaie ikasleei, beren konpromisoak idatziz adieraz ditzatela.

Ziklo horietan guztietan bada errepikatzen den ariketa bat: KORRIKA 18ren ibilbidea.

Horretan, ibilbidea jarraitzeaz bat, mapa mutua aurkezten da. Aurten, eta eguneko prentsa baliabide ezinhobea dela pentsatzen dugun arren, teknologia berriez baliatzea proposatzen dugu. Horretarako, AEK koordinakundeak ***www.korrika.org*** helbidean erakusgai izango duen GPSa baliatuz, KORRIKA Euskal Herriko bazterretan barrena nondik nora dabilen ikustea proposatzen dugu.

Ipuinari dagokionez, adin-tarte honetan ere, ez da hausnarketarik lortuko ikasleek ipuina entzun-ikusi hutsa egiten badute. Ezinbestekoa da gaia galdera itxien bidez bideratzea. Irakasleak, horretarako, ipuinean agertzen diren egoera eta pertsonaien inguruko hausnarketa bideratuko du. Materiala ezagutuko du irakasleak eta jakingo du zein puntu diren garrantzitsuenak.

BIGARREN HEZKUNTZARI DAGOKIONEZ, aurreko zikloan bezalaxe, oraingoan ere ikasle helduenak ipuin-kontalari lanetan arituko zaizkigu. Horretarako, kidetze-estrategia erabiliko dugu. Ikus horren deskribapena sarrera orokorra deituriko atalean. ***"Eman euskara elkarri"*** mezua hausnarketarako gai izango da Bigarren Hezkuntzan, ikasleak euskararen garrantziaz jabetu daitezen, euskarak egunerokoan zer suposatzen duen pentsa dezaten... Unitate honetan, gainera, teknologia berrietara zein ikus-entzunezkoetara hurbilduko ditugu nerabeak, haiek ere euskaraz landu daitezkeela ohar daitezen.

Hauek dira etapa guztietan errepikatzen diren jarduerak:

- Kanta eta mezua. KORRIKA kanpaina kokatzeko eta girotzeko erabiliko dira.

- Ipuina. Ipuina lantzerakoan, hezkuntza-etapa bakoitzak bere berezitasuna izango du.

- Era berean, KORRIKA TXIKIA ekimena indartu egin nahi da, aukera ematen digulako eskola barruan egindako lana kanporatzeko eta euskararen aldeko elkartasuna adierazteko.

  Jarduerak antolatzerakoan progresio bat bilatu nahi izan dugu, ikasleek KORRIKArekin eta horrek helarazi nahi duen mezuarekin bat egin dezaten eta KORRIKAk Euskal Herriko bazterrak zeharkatzen dituen egunetan ikasleak ere KORRIKAren parte senti daitezen.

IRAKASLEARENTZAT ORIENTABIDEAK

JARDUERAK-LH	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
1. ZER DA KORRIKA	KORRIKA 18ren girotze lana eta aurkezpena	- Gelan tutoreak KORRIKAri buruz galdetuko du. - Ikasle bakoitzak gurasoei KORRIKAri buruz galdetuko die. Albait informazio gehien bildu beharko dute etxeko ariketa horretan.	- Unitate didaktikoa lantzen hasi aurreko lehen saioa.	- Gelako tutorea
2. KANTA	KORRIKA 18ren girotze-lana eta aurkezpena	- Kanta entzun eta irakurri. - Bideoklipa ikusi. - Sarrera/irteera-orduetan, jolasorduan ... KORRIKA 18ren abestia jarri.	- Abestia entzun, irakurri eta bideoklipa ikusi lehen egunean. - KORRIKAk irauten duen bitartean.	- Gelako tutorea edota Musika-irakaslea
3. IPUINA	- Kontakizuna entzutea: aditu eta ulertzeko gaitasuna lantzea. - Hiztegia lantzea. - Kidetze-plana abian jartzea. - Ahozkotasuna eta irudikapena erabiltzea eta lantzea.	- Irakasleak, irudiak erakutsi gabe, ipuina dramatizatuko du. - Irudien laguntza baliatuz, irakasleak ipuina dramatizatuko du. - Ikasleei ipuineko irudiak zuri-beltzean emango zaizkie eta, irakasleak ipuina irakurtzen dien bitartean, margotu egingo dituzte. - Kidetze-estrategiaren bidez, ikasle nagusiek ipuina antzeztu edota irakurriko dute gaztetxoen aurrean.	- Ipuina lantzeko 3 saio erabiltzea aurreikusten da. 4.saio baten erabilera aurreikusten da kidetze-estrategia lantzeko; alegia, ikasle nagusien ipuin kontaketa edota antzezpena entzuteko.	- Gelako tutorea

IRAKASLEARENTZAT ORIENTABIDEAK

JARDUERAK-LH	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
4. IBILBIDEA	- KORRIKA 18ren ibilbidea lantzea. - Euskal Herria ezagutzea - Euskal Herriko hainbat herri ezagutzeko eta deskribatzeko gaitasuna garatzea.	- Euskal Herriko mapa gela barruan jarri eta, bertan, KORRIKA 18ren ibilbidea markatuko dugu: etapa bakoitzaren hasiera eta bukaera. - Ibilbidea markatzeko furgoneta erabiliko dugu eta bidea eranskailuak baliatuz markatu.	- KORRIKAk irauten duen egun guztietan.	- Gelako tutorea
5. "EMAN EUSKARA ELKARRI" GALDETEGIA	- KORRIKA eta euskal kultura ezagutzea eta lantzea. - Talde-lana eta parte-hartzea suspertzea.	Zenbait proposamen: a)Ikasgela (maila berekoak edo ziklo berekoak) arteko lehiaketa izan daiteke. Moderatzaileak KORRIKA eta euskal kulturarekin lotura duten galdera eta probak egingo dizkie (Atxikita). b)Gelan talde txikiak sortu eta KORRIKA eta euskal kulturarekin lotura duten galdera eta probak egingo dizkiemoderatzaileak/ irakasleak.	- Saio bat.	- Gelako tutorea edo hizkuntza-arloko arduraduna

IRAKASLEARENTZAT ORIENTABIDEAK

JARDUERAK-LH	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
6. LEKUKOA	- Adierazpen plastikorako oinarrizko teknikak ezagutzea. - Ikasleak lekukoaren sinbologiaz ohartaraztea - Informazio-bilaketa lantzea. - Dekalogoan hartutako konpromisoak aintzat hartzea.	- Maila bakoitzak lekuko bat izango du. - Irakasleak lekukoaren sinbologia eta garrantzia ezagutzera bideratuta dauden galderak egingo dizkie denon artean eta Interneteko informazioa lagun. - Euskararekiko dekalogoan adostutako konpromisoak gorde.	- Adierazpen plastikorako saioak erabil daitezke lekukoa egiteko - Sinbologia eta garrantzia lantzeko 20na minutuko saio bi	- Adierazpen plastiko-ko irakaslea - Gelako tutorea edo hiz-kuntza-arduraduna
7. DEKALOGOA: ***Zer egingo dut nik euskararen alde?***	- Euskararekiko eta KORRIKA 18rekiko konpromiso zehatzak adostea - Talde-lana lantzea	- KORRIKAren dekalogoa sortu, ikasle bakoitzak euskararen alde emango dituen pausoak batuko dituen zerrenda eratu. - Gurasoen inplikazioa bilatuko dugu jarduera honen bidez; hortaz, dekalogoa sortzeko galderak aurkeztu eta etxekoekin komentatzera animatuko ditugu haurrak. - Taldeko ume guztien sinadurak jasoko dira agirian. -Umeek ikusteko moduan jarriko da ikasgelako hormetan. - HHko ikasleek sortutako konpromisoen agiria ikusi LH 1.zikloko ikasleekin.	- 2 saio: - Lehen saioan irakasleak egin beharrekoa azalduko die ikasleei. Hainbat galdera botako dizkie, ikasle bakoitza pentsatzera bultzatzeko. Etxekoekin pentsatu eta komentatzera animatuko ditugu ikasleak. - Bigarren saioan dekalogoa sortuko da.	- Gelako tutorea

EMAN EUSKARA ELKARRI

IRAKASLEARENTZAT ORIENTABIDEAK

JARDUERAK-LH	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
8. HORMA-IRUDIA	- KORRIKA 18ren girotze-lana. - Adierazpen plastikorako oinarrizko teknikak eta baliabideak erabiltzea. - Talde-lana suspertzea.	- Ikastolako pasabideak atontzeko erabiliko den horma-irudia sortuko dute ikasleek. Horma-irudi bera erabil liteke KORRIKA TXIKI egunean pankarta gisa, ikasgela bakoitzak berea; edota, nahi izanez gero, maila edo zikloka, bakarra ere sor liteke. - Jardueretan aurrera egin ahala joango da osatzen horma-irudia: ikasleen konpromisoak, Labezomorrof, KORRIKA kantuaren letra, KORRIKAk iraun bitartean jasotako argazkiak... girotze lana egiteko baliagarri den edozerk izango du lekua horma-irudian. - Lanik handiena irakasleak egin beharko badu ere, ikasleak horma-irudiaren parte senti daitezela bilatzen da jarduera honetan.	- KORRIKAk iraun bitartean hainbat saio	- Gelako tutorea edota Plastika arloko irakaslea.
9. DANTZA	- Korrika 18ko kanta erabiliz koreografia bat sortzea Korrika txikia egiten dugun egunean gela/talde bakoitzak dantzatzeko - Gorputz adierazpena lantzea.	- Abestia landu eta bideoklipa ikusi eta gero gela edo taldeka koreografia bat sortzea. Musikak eta letrak adierazten dienaren gorputz adierazpena egitea	- 3 saio erabiliko dira	- Gelako arduraduna edo gorputz-hezkuntzako irakaslea

IRAKASLEARENTZAT ORIENTABIDEAK

JARDUERAK-LH	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
10. PETOA	- Plastika-adierazpenen oinarrizko teknikak eta baliabideak erabiltzea. - A21ekiko errespetua lantzea.	- KORRIKA TXIKIrako edo eskolan egingo den jaialdirako petoa prestatu. - Petoaren aurreko aldean KORRIKA 18ren logoa jarriko dugu eta atzean hutsik; bertan konpromiso bat idatzi, dekalogoan hartutakoen artean garrantzitsuena dela uste dutena. - Erabiliko ditugun materialak ahalik eta berrerabilgarri edo birziklagarrienak izango dira.	- Plastika-arloko bi saio erabiliko ditugu.	- Plastikako irakaslea edota gelako tutorea
11. KORRIKA TXIKIA	KORRIKA 18ren girotze-lana.	- 8. jardueran sortutako petoa jantzita aterako dira, eta gela bakoitzak sortu duen lekukoa txandaka eramango dute.	- KORRIKA herritik pasatzen den egunean. - Eskola ordutegian.	- Gelako tutorea


10 -12 URTE
JARDUERAK

MEZUA

KORRIKA 18k **Eman euskara elkarri** dio, euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza izan behar duelako euskarak. Elkarri hitz egiteko hizkuntza.

Elkar entzuteko eta ulertzeko.


Dakienak ikasi nahi duenari irakatsi, ulertzen duenak hitz egiten duenari erabiltzeko aukera eman, agintariek herritar orori ikasteko bideak erraztu... Denok dugu zeresana eta zeregina.

Euskara denona da eta denontzat izan behar du. Kohesiorako lehengaia eta tresna.

AEK-ko kideok hizkuntza eta kultura bizien arteko bizikidetza aldarrikatzen dugu, eta munduarentzat defendatzen dugun kultura-aniztasunak bertako aberastasunaren errespetuan eta sustapenean oinarritu behar duela deritzogu. Horregatik dugu helburu euskararen ikaskuntzan eta erabileran oinarritutako elkarbizitza.

Euskara UNESCOren hizkuntza gutxituen atlasean dago. Hizkuntza bizia da, baina ahula da bere egoera, eta oso kezkagarria, lurralde batzuetan. Horregatik, aginte publikoei dei egiten diegu, euskara babesteko eta bultzatzeko neurriak ezar ditzaten.

Baita norbanako eta erakunde guztiei ere, euskara ikasi eta erabil dezaten, eta euskararen aldeko testuinguru soziopolitikoa sor dezaten.



EMAN EUSKARA ELKARRI

KANTA

SARRERA

Jarduera honen helburua hutsuneak betetzea da eta KORRIKA 18ko abestia entzutea eta ikasteko baliabideak eskaintzea

Era berean, abestia egin duen taldearen, ESNE BELTZA, informazioa eman diezaiekegu ikasleei.

PROZEDURAK

- Lehenik, abestia banatu eta letraren irakurketa burutuko dugu.Ondoren, hutsuneak identifikatu eta horiek betetzeko aukerak irakurriko ditugu.
- Jarraian, abestia entzun eta hutsuneak osatu.
- Azkenik, emaitzak ahots gora irakurri eta kantaren entzunaldia burutuko dute.

Noski, denon artean abestu!

BALIABIDEAK

- Hurrengo orrialdearen fotokopiak ikasle guztientzat.
- Entzunaldia egin ahal izateko KD irakurgailua eta audioa.

KANTA " BAGOAZ"

Bagoaz Euskal Herritik mundura
eskua emanaz ....
bideak direla gure lotura
urratsak direla gure ....
bagoaz Korrika uo...
elkar entzunaz elkar ....
bagoaz Korrika uo...
guk jaso duguna zuei ....

ematera
oinarri
galdetzera
ulertzera
elkarri
lokarri
dantzatzera

Euskara da euskaldunon ....
guztion lur eta guztion zeru
horregatik maite dugu ....
Baina gehiagok maita dezakegu
bagoaz korrika uo...
ikastera eta erakustera
bagoaz korrika

Ezaugarri
Maitagarri
euskara
izugarri
eredugarri
hizkuntza

BAGOAZ KORRIKA
EGIZU HITZ HERRI ZAHAR HERRI BERRI
BAGOAZ KORRIKA
EMAN EUSKARA ELKARRI
BAGOAZ KORRIKA
EMAN EUSKARA ELKARRI
BAGOAZ KORRIKA
EGIZU HITZ HERRI ZAHAR HERRI BERRI
HARTU ETA EMAN EUSKARA ELKARRI

..........,..........., ..., ..., ...,
............., ...,

Baiona	**Iruñea**
Andoain	**Gasteiz**
Maule	**Donostia**
Bilbo	**Barakaldo**
Lesaka	**Donibane Garazi**

IPUINA

SARRERA

Jarduera hau urtero errepikatzen den horietakoa bada ere, aurten, lehenik eta behin kohesioa lantzeko jarduera bat proposatzen dugu.

Jarduera hau oso aproposa da “Eman euskara elkarri” mezua lantzeko. Ikasleak, euskara nork eman dien eta nori ematen dioten jabetuko dira; horretarako, ezinbestekoa izango da irakasleak hausnarketarako galderak ematea, ikasgelan eztabaida piztea...

Kidetze-estrategiaren bidez, ikasle txikienei kontatu edo antzeztuko diete, gorputz- adierazpena eta ahozkotasuna landuz.

PROZEDURA

Lehenik eta behin ipuina desordenatuta irakurriko dute denen artean, jarraian bikoteka ipuinari orden egokia eman eta denon artean zuzenduko dute dagokion intonazioa emanez.

Kidetze-estrategia erabiliz proposamen ezberdinak:

a) Ikasle gaztetxoen geletara joango dira ipuina kontatzera, bikoteka egingo dute eta irudiez baliatuko dira. Horretarako, ikasgelan ahozkotasuna, intonazioa eta dramatizazioa landuko dira.

b) Talde txikietan (4 pertsonako taldeak, gutxi gorabehera) ipuina antzerki bihurtu, elkarrizketak sortu, eta ikasle txikienen geletan antzeztu.

c) Talde txikietan antzerkia komiki bihurtu eta ikasle txikienen geletan kontatu irudiak baliatuz eta intonazio eta dramatizazio egokia baliatuz. Komikia ere pasabideetan zein gelako hormetan jarri apaintzeko eta nahi duenak irakurtzeko.

BALIABIDEAK

- Ipuina desordenatuta (hurrengo orrialdeak)

- Jatorrizko ipuina.(Ikus 15.or.)

Proposamen ezberdinetarako:

a) Ipuina eta irudiak

b) Ipuina

c) Ipuina eta irudiak, margoak

EUSKARAZ BIZI

ikastolenelkartea

aek 18.korrika

EMAN EUSKARA ELKARRI

IPUINA

A

Horretarako gogoa zuen, bada, Labezomorroffek berak, une hartan. Hura zen hura atarramentua! Etxerik eta lagunik gabe, parke-bazterrean! Poliki-poliki, tekla artean irristaka, blues triste bat jotzen eta kantatzen hasi zen Labezomorroff: “Labezomorro, labezomorro, ezin dela ibili; faltan duela, ez duelako, mintzatzeko lagunik!”.

Horretan ari zen, jo eta jo, ahots lodiz hitzei zukua ateratzen, hots metaliko batzuk entzun zituenean atzealdetik. Gizon bat zen, azalez apur bat beltzarana, lata erraldoi bat makilaz astintzen ari zena. Labezomorroffek ez zuen izutzeko ere astirik izan.

Segi, segi —zuzendu zitzaion gizona ordea—. Erritmoa jarraitzen ari nintzen. Ederki ari zara. Pena bakarra, ezin dudala zurekin abestu, ez dakit-eta euskaraz oso ondo.

B

Labezomorroff pianoaren azpian bizi zen. Berak zekiela, horrela izan zen beti. Han, piano zaharraren ilunpean, etxeko sosegu astun hartan pasa zituen bere bizitza osoko ordu luze guztiak, oroimenak herren egiten ez bazion behintzat

C

Hori guztia, zer esanik ez, kolpe gogorra izan zen Labezomorroffentzat. Amonarekin beti harreman iskanbilatsua izan zuen arren (batez ere erratza hartzea bururatzen zitzaionean), hari esker ikasi zuen euskaraz hitz egiten eta baita munduan gehien gustatzen zitzaiona ere: musika jotzea.

Izan ere, berak bakarrik zekien zenbat eta zenbat ordu pasa zituen piano azpian “Inaxio gure patroi haundia”, “Andre txarraren bentajak”, “Aita-semeak tabernan daude” eta antzeko abestiak entzuten. Entzuten eta buruz ikasten. Ze amonak ahots txarra zuen, baina oso altu kantatzen zuen behintzat.

Txikitatik amonak sartu zion grina hori medio, Labezomorroffek gau osoak pasa izan zituen tekla zuri-beltzen artean korrika, bere musika-dohainak garatzen eta trebatzen. Ordurako, harrokeriarik gabe esan zezakeen, soinean berezkoa zuen fraka jantzita, piano aurrean jartzen zenean, negarrez jartzeko gai zela edozein.

D

Gaur egun, Labezomorroff jiran dabil. AEK-ko lagunek kontratatu dute, Korrika jaiaren kontura, korrikalarien jarraipena egiten duen furgoneta barruan musika jotzen aritzeko. Taldea eta guzti du gainera: “Babel-mozorro eta euskalariak”!

E

Nonbait, hala ere, bere buruak kale egiten zion noski. Izan ere, bera ez zen berez Euskal Herrian sortua. Oso-oso txikitan, xomorro-arrautza besterik ez zela, kanpotik etorria izango zen Labezomorroff, inondik inora ere. Hori seguru. Horrela aipatzen zion, behintzat, etxeko amonak, piano azpitik egongelako alfonbraraino gaileta-papur bila pauso bat ematera ausartzen zen bakoitzean:

- Kaben la Rusia! Labezomorro alaena!

Ez zen zalantza handirik beraz. Labezomorroff, errusiarra zen. Urrutikoa. Aliena izateraino ez beharbada, baina kanpokoa bai. Bai, horixe! Amonak ez zuen ia piperrik ikusten, baina gezurrik ere ez zuen sekula esaten.

Horrexegatik, beharbada, gezurrik esaten ez zekielako alegia, oso denbora tarte laburrean amonak Afrikako lurralde epelagoetara alde egin zuen (Ceutara, zerura edo antzeko herri batera) eta banketxeek, bitartean, beren gain hartu behar izan zuten haren etxea zaintzeko zeregin arduratsua.

Handik gutxira, hau da, ia berehala, banketxeek etxea garbitu zuten eta pianoak eta, horren barruko hari eta tekla artean ezkutatuta, Labezomorroffek, hiriko parkearen bazter eroso batean amaitu zuten, zakarrontzi-ilara luzearen aldamenean.

F

Labezomorroffek harrituta begiratu zion. Handia zen hura, gero! Berak musika behar zuen, mintzakide; beste hark, berriz, erritmoaren esanahia, hitza. Elkarri eman ziezaioketen behar zutena. Erraza zen hura.

- Hurbildu ba, motel. Neuk irakatsiko diat.

Jotzen jarraitu zuten. Eta kantatzen. Bi ahotsetara. Poliki eta dardarka, hasieran; segurtasun handiagoz gero. Harik eta, bi tresna izatetik, hiru eta lau izatera pasa ziren arte.

Emakume bat batu zitzaien gitarra txiki bat eta guzti (mandarina edo mandolina, edo horrelako fruta-izena zuen). Ile urdindua baina atzamarretan amona zenak baino artritis gutxiago zuena. Bilobei gustatuko omen zitzaien abesti hura eta berari ere irakasteko, mesedez.

Gorbata eta txaketa janzten zituen gizon gazte bat ere hurreratu zitzaien. Ez al zen banketxeko morroi hura, gainera? Labezomorroffek ez zekien seguru, denek horrenbesteko antza ote zuten... Bada hura, tronpa deitzen zion musika-tresna bitxi bat zuela etorri zen. Ba omen zekien euskaraz zer edo zer, baina herdoildu samarra omen zeukan.

Haiekin aritu zen Labezomorroff kantari eta pianoa jotzen ia gau osoan. Elkarrekin, alegia. Eta berdin hurrengo egunetan ere. Egunetik egunera, gero eta jende-multzo handiagoa biltzen zen, gainera. Hura bai ederra, parkeko giroa!

1.	2.	3.	4.	5.	6.

IPUINA

Labezomorroff pianoaren azpian bizi zen. Berak zekiela, horrela izan zen beti. Han, piano zaharraren ilunpean, etxeko sosegu astun hartan pasa zituen bere bizitza osoko ordu luze guztiak, oroimenak herren egiten ez bazion behintzat.

Nonbait, hala ere, bere buruak kale egiten zion noski. Izan ere, bera ez zen berez Euskal Herrian sortua. Oso-oso txikitan, xomorro-arrautza besterik ez zela, kanpotik etorria izango zen Labezomorroff, inondik inora ere. Hori seguru. Horrela aipatzen zion, behintzat, etxeko amonak, piano azpitik egongelako alfonbraraino gaileta-papur bila pauso bat ematera ausartzen zen bakoitzean:

- Kaben la Rusia! Labezomorro alaena!

Ez zen zalantza handirik beraz. Labezomorroff, errusiarra zen. Urrutikoa. Aliena izateraino ez beharbada, baina kanpokoa bai. Bai, horixe! Amonak ez zuen ia piperrik ikusten, baina gezurrik ere ez zuen sekula esaten.

Horrexegatik, beharbada, gezurrik esaten ez zekielako alegia, oso denbora tarte laburrean amonak Afrikako lurralde epelagoetara alde egin zuen (Ceutara, zerura edo antzeko herri batera) eta banketxeek, bitartean, beren gain hartu behar izan zuten haren etxea zaintzeko zeregin arduratsua.

Handik gutxira, hau da, ia berehala, banketxeek etxea garbitu zuten eta pianoak eta, horren barruko hari eta tekla artean ezkutatuta, Labezomorroffek hiriko parkearen bazter eroso batean amaitu zuten, zakarrontzi-ilara luzearen aldamenean.

Hori guztia, zer esanik ez, kolpe gogorra izan zen Labezomorroffentzat. Amonarekin beti harreman iskanbilatsua izan zuen arren (batez ere erratza hartzea bururatzen zitzaionean), hari esker ikasi zuen euskaraz hitz egiten eta baita munduan gehien gustatzen zitzaiona ere: musika jotzea.

Izan ere, berak bakarrik zekien zenbat eta zenbat ordu pasa zituen piano azpian “Inaxio gure patroi haundia”, “Andre txarraren bentajak”, “Aita-semeak tabernan daude” eta antzeko abestiak entzuten. Entzuten eta buruz ikasten. Ze amonak ahots txarra zuen, baina oso altu kantatzen zuen behintzat.

Txikitatik amonak sartu zion grina hori medio, Labezomorroffek gau osoak pasa izan zituen tekla zuri-beltzen artean korrika, bere musika-dohainak garatzen eta trebatzen. Ordurako, harrokeriarik gabe esan zezakeen, soinean berezkoa zuen fraka jantzita, piano aurrean jartzen zenean, negarrez jartzeko gai zela edozein.

Horretarako gogoa zuen, bada, Labezomorroffek berak, une hartan. Hura zen hura atarramentua! Etxerik eta lagunik gabe, parke-bazterrean! Poliki-poliki, tekla artean irristaka, blues triste bat jotzen eta kantatzen hasi zen Labezomorroff: “Labezomorro, labezomorro, ezin dela ibili; faltan duela, ez duelako, mintzatzeko lagunik!”.

Horretan ari zen, jo eta jo, ahots lodiz hitzei zukua ateratzen, hots metaliko batzuk entzun zituenean atzealdetik. Gizon bat zen, azalez apur bat beltzarana, lata erraldoi bat makilaz astintzen ari zena. Labezomorroffek ez zuen izutzeko ere astirik izan.

IPUINA

- Segi, segi —zuzendu zitzaion gizona, ordea—. Erritmoa jarraitzen ari nintzen. Ederki ari zara. Pena bakarra, ezin dudala zurekin abestu, ez dakit-eta euskaraz oso ondo.

Labezomorroffek harrituta begiratu zion. Handia zen hura, gero! Berak musika behar zuen, mintzakide; beste hark, berriz, erritmoaren esanahia, hitza. Elkarri eman ziezaioketen behar zutena. Erraza zen hura.

- Hurbildu ba, motel. Neuk irakatsiko diat.

Jotzen jarraitu zuten. Eta kantatzen. Bi ahotsetara. Poliki eta dardarka, hasieran; segurtasun handiagoz, gero. Harik eta, bi tresna izatetik, hiru eta lau izatera pasa ziren arte.

Emakume bat batu zitzaien gitarra txiki bat eta guzti (mandarina edo mandolina, edo horrelako fruta-izena zuen). Ile urdindua baina atzamarretan amona zenak baino artritis gutxiago zuena. Bilobei gustatuko omen zitzaien abesti hura eta berari ere irakasteko, mesedez.

Gorbata eta txaketa janzten zituen gizon gazte bat ere hurreratu zitzaien. Ez al zen banketxeko morroi hura, gainera? Labezomorroffek ez zekien seguru, denek horrenbesteko antza ote zuten... Bada hura, tronpa deitzen zion musika-tresna bitxi bat zuela etorri zen. Ba omen zekien euskaraz zer edo zer, baina herdoildu samarra omen zeukan.

Haiekin aritu zen Labezomorroff kantari eta pianoa jotzen ia gau osoan. Elkarrekin, alegia. Eta berdin, hurrengo egunetan ere. Egunetik egunera, gero eta jende-multzo handiagoa biltzen zen, gainera. Hura bai ederra, parkeko giroa!

Gaur egun, Labezomorroff jiran dabil. AEK-ko lagunek kontratatu dute, KORRIKA jaiaren kontura, korrikalarien jarraipena egiten duen furgoneta barruan musika jotzen aritzeko. Taldea eta guzti du gainera: “Babel-mozorro eta euskalariak”!

IPUINA. JARDUERA ZUZENKETA


1.	2.	3.	4.	5.	6.
B	E	C	A	F	D



MARRAZKIA KOLORETAN
10-12 URTE



MARRAZKIA KOLORETAN
10-12 URTE



MARRAZKIA ZURI-BELTZEAN
10-12 URTE

EMAN EUSKARA ELKARRI



MARRAZKIA ZURI-BELTZEAN
10-12 URTE

EUSKARAZ BIZI

ikastolenelkartea

aek 18.korrika

EMAN EUSKARA ELKARRI

IBILBIDEA

SARRERA

Jarduera honen helburua KORRIKA 18ren jarraipena egitea da. Horretarako, AEK koordinakundeak ***www.korrika.org*** webgunean erakusgai duen GPS bilatzailea erabiliko da. KORRIKA egunez egun zein bazterretan dagoen jakiteaz gain, Euskal Herriko txoko eta bazterrak gehiago ezagutzeko aukera izango dugu.

PROZEDURA

- Euskal Herriko mapa gela barruan edo ikastolako pasabideetan jarriko da eta bertan KORRIKA 18ren ibilbidea markatuko dugu: KORRIKA non hasi, non amaitu eta egun bakoitzeko etapen hasiera- eta amaiera- puntuak.

- Egun bakoitzean, hasiera-puntutik bukaerarainoko ibilbidea markatuko da.

- Egun guztietan antzeko orduan webgunean begiratu eta momentu horretan KORRIKA non dagoen markatuko da mapan; horretarako Labezomorroff panpina erabiliko da.

- Aukera ikusiko balitz, prentsan topatutako argazkiak mapan kokatu eta lekuen deskribapenak osatuko ditugu.


BALIABIDEAK

- Euskal Herriko mapa

- KORRIKAren ibilbidea

- ***www.korrika.org*** webgunea

- Eranskailuak



“EMAN EUSKARA ELKARRI” GALDETEGIA

SARRERA

Jarduera hau KORRIKA eta, oro har, euskara eta euskal kultura lantzeko da. Lehiaketa bat egingo dute ikasleek, ikasgela barruan hainbat taldetan banatuta zein ikasgelen artean. Moderatzaile batek (irakasleak) aginduko dituen galderak zein probak jarriko ditu.

PROZEDURA

- Lehenik eta behin taldeak egin (ikasgela bereko ikasleak badira, talde txikiak sortu; ikasgela artekoa bada, zenbat talde sortuko diren erabaki).

- Irakasleak galderak fotokopiatu eta moztu egingo ditu eta galdera bakoitza paper zati batean jarri. Galdera guztiak kutxa batean sartuko dira.

- Ikasle talde bakoitzak dagokion txandan galdera bana hartuko du (taldeko bozeramaileak) eta ozenki irakurri. Irakasleak erabakiko du zenbat denbora duen taldeak galderaren erantzuna pentsatzeko.

- Galdera zuzenak egin ahala, puntuak lortuz joango dira ikasle taldeak.

- Irabazle suertatzen den taldeari sariren bat ematea posible litzateke (KORRIKA egunean lekukoa eramatea, adibidez).

BALIABIDEAK

-Moderatzaileak aginduko dituen galdera zein probak (erantsita)

* **Oharra:** *Badira hausnarketarako bereziki; egokiak diren galderak; irakasleak erabakiko du beste galderekin nahastu edo jarduerari hasiera emateko erabiliko dituen.*

“EMAN EUSKARA ELKARRI” GALDETEGIA

- Zein taldetako abeslaria da Eñaut Elorrieta?
- Nork irabazi zuen azkeneko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa?
- Zenbat urte ditu Uxue Alberdik?
    - A) 20 baino gutxiago
    - B) 25-35 artean
    - C) 40 baino gehiago
- Zein taldek egin du KORRIKA 18ren kantua?
- Non ospatuko da 2013ko Nafarroa Oinez?
- Zein da Bizkaiko ikastolen jaiaren izena?
- Nor da Berria egunkariaren zuzendaria?
- Zein da Euskal Herriko mendirik altuena?
- Non hasiko da KORRIKA 18?
- Noiz ospatzen da Euskararen Eguna?
- Zein da Gatibu taldearen azken lanaren izenburua?
- Zer izen du Durangoko kafe-antzokiak?
- Noiz ospatzen da Durangoko Azoka?
- Nork irabazi du Iparraldeko Bertsolari Txapelketako azken finala?
- Noiz ospatu zen lehenengo KORRIKA?
- Nor omenduko du KORRIKAk aurten?
- Zein herrialdetan amaituko da KORRIKA 18?
- Zenbat kidek osatzen dute Ze Esatek! taldea?
- Zer izen du GOSE taldeko kantariak?
- Nork aurkezten du Mihiluze?
- Zein da Gasteizko jaietako pertsonaia?
- Nork antolatzen du Durangoko Azoka?
- Jarraitu kantua...
    - Euskal Herrian euskaraz...
- Non ospatzen da Euskal Herriko Dantza Sueltoko Txapelketa?

“EMAN EUSKARA ELKARRI” GALDETEGIA

- Nork idatzi zuen *“Behi euskaldun baten memoriak”* liburua?
    - A) Kirmen Uribe
    - B) Bernardo Atxaga
    - C) Iban Zaldua
- Zein izan zen euskarazko lehen egunkaria?
    - A) Euskara
    - B) Euskaldunon Egunkaria
    - C) Eguna
- Zein da Gernikako pilotalekuaren izena?
- Noiz ospatzen da Bilboko Aste Nagusia ?
- Hauetatik zein EZ da Iruñeko auzoa?
    - Txantrea
    - Ermitagaña
    - Intxaurrondo
    - Sanduzelai
- Nork margotu zuen *“Gernika”* koadroa?
- Nongoa da Kirmen Uribe idazlea?
- Noiz zabaldu zituen ateak Guggenheim Museoak?
- Noiz ospatzen da Donostiako danborrada?
- Non jaio zen Balenciaga moda-diseinatzailea?
- Non ospatzen da Iparraldeko ikastolen jaia?
- Nor izan zen Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakaria?
- Nork antolatzen du KORRIKA?
- Zein da Euskal Herriko hiribururik txikiena?
- Nork irabazi zuen 2012ko Euskal Herriko Itzulia?
- Zer izen du Xabier Amurizaren alaba bertsolariak?
    - Miren
    - Leire
    - Gentzane
- Nor da Euskal Herrian Michelin izar gehien dituen sukaldaria?

“EMAN EUSKARA ELKARRI” GALDETEGIA

- Zein urtetan sortu zen Euskaltzaindia?
- Nor da Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakaria?
    - Igor Elortza
    - Maialen Lujanbio
    - Iñaki Murua
- Hauetako zein da “labaindu” hitzaren sinonimoa?
    - laprast egin
    - birrindu
    - gerturatu
- Nongoak dira Betagarri taldeko kideak?
- Zenbat hizkuntza daude munduan? *
- Zenbat hizkuntza daude Europan? *
- Nola neur daiteke hizkuntza baten garrantzia? *
- Zenbat pertsonak (gutxi gorabehera) hitz egiten dute gaztelaniaz munduan? *
- Zenbat pertsonak (gutxi gorabehera) hitz egiten dute euskaraz munduan? *
- Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Euskal Herrian? *
- KORRIKAren antzeko zein lasterketa ospatzen dute Katalunian?
- Erdi Aroan, Euskal Herriaz gain, non gehiago hitz egiten zen euskaraz?
- Zenbat euskaltegi eta gau-eskola daude Euskal Herrian?
    - 300 inguru
    - 100 baino gutxiago
    - 100 baino gehiago
- Zer izen du AEK-k hilabetero kaleratzen duen aldizkariak?
    - Gaztezulo
    - Argia
    - Aizu!
- Zenbat euskaltegi ditu AEK-k Bizkaian?

EUSKARAZ BIZI
ikastolenelkartea
aek 18.korrika
EMAN EUSKARA ELKARRI

“EMAN EUSKARA ELKARRI” GALDETEGIA ERANTZUNEKIN

- Zein taldetako abeslaria da Eñaut Elorrieta? (Ken7)
- Nork irabazi zuen azkeneko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa? (Maialen Lujanbio)
- Zenbat urte ditu Uxue Alberdik? (25-35 artean)
- Zein taldek egin du KORRIKA 18ren kantua? (Esne Beltza)
- Non ospatuko da 2013ko Nafarroa Oinez? (Tutera)
- Zein da Bizkaiko Ikastolen jaiaren izena? (Ibilaldia)
- Nor da Berria egunkariaren zuzendaria? (Martxelo Otamendi)
- Zein da Euskal Herriko mendirik altuena? (Hiru Erregeen Mahaia)
- Non hasiko da KORRIKA 18? (Andoain)
- Noiz ospatzen da Euskararen Eguna? (Abenduak 3)
- Zein da Gatibu taldearen azken lanaren izenburua? (Zazpi kantoietan)
- Zein da Durangoko Kafe Antzokiaren izena? (Plateruena)
- Noiz ospatzen da Durangoko Azoka? (Abenduko zubian?
- Nork irabazi du Iparraldeko Bertsolari Txapelketako azken finala? (Amets Arzallus)
- Noiz ospatu zen lehenengo KORRIKA? (1980)
- Nor omenduko du KORRIKAk aurten? (Euskaldun berriak, euskara ikasten ari direnak)
- Zein herrialdetan amaituko da KORRIKA 18? (Lapurdi)
- Zenbat kidek osatzen dute Ze Esatek! Taldea? (10)
- Zein da GOSE taldeko kantariaren izena? (Ines Osinaga)
- Nork aurkezten du Mihiluze? (Kike Amonarriz eta Ilaski Serrano)
- Zein da Gasteizko jaietako pertsonaia? (Zeledon)
- Nork antolatzen du Durangoko Azoka? (Gerediaga Elkarteak)
- Jarraitu kantua...
    - Euskal Herrian Euskaraz...
- Non ospatzen da Euskal Herriko Dantza Sueltoko Txapelketa? (Segura)
- Nork idatzi zuen “Behi euskaldun baten memoriak” liburua? (Bernardo Atxaga)
- Zein izan zen euskarazko lehen egunkaria? (Eguna)
- Zein da Gernikako pilotalekuaren izena? (Jai alai)

“EMAN EUSKARA ELKARRI” GALDETEGIA ERANTZUNEKIN

- Noiz ospatzen da Bilboko Aste Nagusia ? (Abuztuan)
- Hauetatik zein EZ da Iruñeko auzoa? (Intxaurrondo)
- Nork margotu zuen “Gernika” koadroa? (Picasso)
- Nongoa da Kirmen Uribe idazlea? (Ondarru)
- Noiz zabaldu zituen ateak Guggenheim Museoak? (1997)
- Noiz ospatzen da Donostiako danborrada? (Urtarrilak 20)
- Non jaio zen Balenciaga moda-diseinatzailea? (Zumaia)
- Non ospatzen da Iparraldeko Ikastolen Jaia? (Senpere)
- Nor izan zen Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakaria? (J.A. Aguirre)
- Nork antolatzen du KORRIKA? (AEK erakundeak)
- Zein da Euskal Herriko hiribururik txikiena? (Donibane Garazi)
- Nork irabazi zuen 2012ko Euskal Herriko Itzulia? (Samuel Sanchez)
- Nor da Euskal Herrian Michelin izar gehien dituen sukaldaria? (Eneko Atxa)
- Zein da Xabier Amurizaren alaba bertsolariaren izena? (Miren)
- Zein urtetan sortu zen Euskaltzaindia? (1918)
- Nor da Euskal Herriko Bertsozale Elkartekaren lehendakaria? (Iñaki Murua)
- Hauetako zein da “labaindu” hitzaren sinonimoa? (laprast egin)
- Nongoak dira Betagarri taldeko kideak? (Gasteiz)
- Zenbat hizkuntza daude munduan? (6.500 hizkuntza inguru)*
- Zenbat hizkuntza daude Europan? (Europan 50-60 hizkuntza inguru daude) *
- Nola neur daiteke hizkuntza baten garrantzia? (Hizkuntza baten garrantzia hiztun-kopuruagatik eta botere politiko eta ekonomikoagatik neur daiteke.)*
- Zenbat pertsonak (gutxi gora behera) hitz egiten dute gaztelaniaz munduan? (43 milioi)*
- Zenbat pertsonak (gutxi gora behera) hitz egiten dute euskaraz munduan? (800.000 inguru)*
- Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Euskal Herrian? (3: euskara, gaztelania, frantsesa)*
- KORRIKAren antzeko zein lasterketa ospatzen dute Katalunian? (Correllengua)

“EMAN EUSKARA ELKARRI” GALDETEGIA ERANTZUNEKIN

- Erdi Aroan, Euskal Herriaz gain, non gehiago hitz egiten zen euskaraz? (Erdi Aroan behintzat Errioxan eta Burgosko ipar-ekialdean ere hitz egin zela dokumentatuta dago)
- Zenbat euskaltegi eta gau-eskola daude Euskal Herrian? (100 baino gehiago)
- Zein da AEK-k hilabetero kaleratzen duen aldizkariaren izena? (Aizu!)
- Zenbat euskaltegi ditu AEK-k Bizkaian? (36)

LEKUKOA


SARRERA

Jarduera hau edizio bakoitzean errepikatzen den horietakoa da. Klasiko bihurtu arren, komeni da norberak berrikuntza bilatzeko saiakera egitea. Gogoratu gela bakoitzak euskararen dekalogoa osatu eta onartu duela aurretiaz eta hori izango dela gelako lekukoaren barruan gordeko den mezu ezkutua.

LHko 2. mailatik gorako ikasleen kasuan, ikasgela bakoitzeko ordezkariak ikasgela guztietan lortutako mezu eta konpromisoez dekalogo orokor bat sortzeko elkartu baldin badira, lekukoaren barruan gelako zein ikastetxeko dekalogoa gorde daitezke.

PROZEDURA


- Ikasleei komuneko edo sukaldeko paperaren tutuak ekar ditzaten eskatuko diegu jarduera egin aurretik.
- KORRIKAren irudiez baliatuz, tutua apaindu. (Hurrengo orrialdean baliagarri izan daitezkeen irudiak eskaintzen ditugu).
- Azkenik, pinotxo-papera baliatuz koloretako zintak egin eta goiko muturrean itsatsi.
- Adostutako gelako/ikastetxeko dekalogoa kartoi-mehean idatzi eta lekukoaren barruan sartu eta ertzak estali, mezua eror ez dadin.




BALIABIDEAK

Jarduera egiteko elementu hauek baliatuko ditugu:

- Komuneko edo sukaldeko paperaren barrualdeko tutuak
- Kartoi mehea
- Lekeda
- Margoak
- Koloretako zintak (pinotxo-papera, lazoak, hariak...)





LEKUKOA
10-12 URTE

EMAN EUSKARA ELKARRI

EUSKARAREN DEKALOGOA

ZER EGINGO DUT NIK EUSKARAREN ALDE?

SARRERA

Euskararen Dekalogoan ikasleek euskararekiko konpromisoak idatziko dituzte.

Euskararekiko errespetua landuko da jarduera honetan: ikasleek euskaraz bizitzeko emango dituzten pausoak azal ditzatela.

Ikasmaila honetan ikasleen arteko eztabaida, ikasleen hausnarketa bilatzen da; horretarako, irakasleak galderak egingo dizkie, euskararen egoeraren inguruan eta euskararekiko bakoitzak duen jarreraren inguruan, ikasleek pentsa dezaten.

Ikasleek ikaskideen ideiekiko agertzen duten jarrera ikusteko aukera izango du irakasleak jarduera honetan.

PROZEDURA

- Irakasleak biribilean eseriko ditu ikasleak eta erdian jarriko da eta galderak egingo dizkie ikasleei.
- Talde txikietan antolatuko da ikasle-taldea. Taldeetako kideen artean euskarari bultzada emateko egin dezaketenari buruz hitz egingo dute, ***“Eman euskara elkarri”*** lematik abiatuta, beraiek euskara nori eman diezaioketen pentsatuko dute ikasleek (15-20 minutu inguru).
- Irakasleak galderak egingo dizkie ikasleei, beraien arteko eztabaida pizteko: *noizkoa da euskara?, non sortu zen?, noiz entzun ziren lehen hitzak euskaraz?, zer da zuretzat euskara?, zertarako erabiltzen duzu euskara?, gehiago erabil dezakezu zure egunerokoan?, zer datorkizu burura «euskara» hitza entzuten duzunean?, oporretan joan eta euskaraz ari den familia bat entzuten duzunean, zer pentsatzen duzu?...*

  http://www.youtube.com/watch?v=lGfydvpa3Vk&feature=player_embedded orrialdean agertzen den bideoa, edota Azkue Fundazioaren webgunean (http://www.azkuefundazioa.org/euskararen-etxea) azaltzen diren informazio eta datuak baliagarri izan daitezke, eztabaida pizteko.
- Taldeetan lortutako ideia eta konpromisoak guztien arteak komentatuko dituzte.
- Ikasgelako ordezkari batek euskararekiko konpromisorik garrantzitsuenak idatziko ditu paper batean eta ikasgelan jarriko dute edonork ikusteko.

BALIABIDEAK

- Formatu handiko orri bat
- Arkatza edo boligrafoa
- Horman itsasteko zeloa

EUSKARAZ BIZI

ikastolenelkartea

aek 18.korrika

EMAN EUSKARA ELKARRI

KORRIKA 18 HORMA-IRUDIA

SARRERA

Jarduera honetan ikasleek KORRIKA 18ren irudia ezagutzea da helburua. Aurtengo KORRIKAn bi dira logoak, batetik ***"Eman Euskara Elkarri"*** mezuarekin batera agertzen den irudia, bertan bi esku agertzen dira; eta bestetik, irudi handia, alegia, irudi ezberdinez osatutako koadroa. Azken hau zatikatuta emango zaie ikasleei, margotu dezaten.

PROZEDURA

- Talde txikiak sortu.

- KORRIKAren irudia lau zatitan banatuta eta zuri beltzean eskaintzen dugu. Zatiak DIN-A3 formatuan fotokopiatu eta ikasleei banatuko zaizkie (irakasleak erabakiko du, ikasle-kopuruaren arabera eta hauen taldekatzearen arabera, 4 zati baino gehiago egin behar dituen).

- Talde bakoitzak bere horma-irudi zatia margotuko du, jatorrizko irudia oinarri hartuta.


- Ikasle talde bakoitzak egindako lana besteekin elkartu eta formatu handiko horma-irudia sortu.

BALIABIDEAK

Jarduera hau burutzeko baliatuko ditugunak:

- Errotuladoreak edo margoak

- Irudiaren fotokopiak (Ikus gehigarria)




HORMA-IRUDIA
10-12 URTE

EUSKARAZ BIZI

ikastolenelkartea

aek 18.korrika

EMAN EUSKARA ELKARRI



HORMA-IRUDIA
10-12 URTE

EUSKARAZ BIZI

ikastolenelkartea

aek 18.korrika

EMAN EUSKARA ELKARRI

“EMAN EUSKARA ELKARRI” DANTZA

SARRERA

Jarduera honetan dantzan ipiniko ditugu ikasleak. KORRIKA 18ren abestia entzun eta abestiak adierazten dienarekin dantza bat prestatuko dute ikasleek.

Esne Beltza taldeak KORRIKArako espresuki prestatutako abestiaren dantza egingo dute ikasleek, talde handian edo talde txikian. Prestatutako dantzak KORRIKA TXIKIA ospatzen den egunean ikaskideen aurrean dantza daitezke.

Interesgarria litzateke prestatutako dantza horiek grabatu eta ikastolako blogean eskegitzea.

PROZEDURA

- Ikasgelako kide guztiek batera edo taldeetan prestatuko duten erabakiko dute ikasleek. Talde txikietan egingo badute, taldeak antolatuko dituzte lehenik.
- KORRIKA 18rako Esne Beltzak egindako kantua eta bideoklipa ikusiko dituzte ikasleek.
- Lehen saioan aurre-prestaketa egingo dute: taldeak, abesti eta bideoa eta ideiak antolatu, dantzak prestatzen hasi.
- Bigarren eta hirugarren saioetan dantzak prestatuko dituzte.
- Ikasleek prestatutako dantzak KORRIKA egunean erakustea litzateke egokiena, jai eguna aitzakia, beste mailetako ikasleei, ikastolako irakasleei eta, ikastolak hala erabakitzen badu, gerturatzen diren gurasoei erakutsiko diete prestatutako dantza.

BALIABIDEAK

- Abestia: musika, letra eta bideoklipa.

PETOA

SARRERA

Jarduera hau edizio bakoitzean errepikatzen den horietakoa da. Papera da jarduera hau burutzeko baliabide nagusia. Plastikoa, ahal dela, baztertu egingo dugu, ingurunea kutsatzen duela kontuan harturik; hala ere, aurreko edizioetarako erabilitakoak birziklatzea proposatuko dizuegu. Aukera bikaina da ingurugiro eta birziklapenari buruz hitz egiteko eta A21eko konpromisoak gogora ekartzeko.

PROZEDURA

Lehenik, KORRIKA 18ko irudia banatuko diegu, (ondorengo orrian) koloreztatzeko. Aurreko aldean aurtengo leloa egongo da; atzeko aldean ikasle bakoitzak bere konpromisoa idatziko du. Petoa KORRIKAren kolorez margotu eta ertzetatik moztuko dugu. Atzeko eta aurreko aldeak kamisetari lotuko dizkiogu kate-orratzen laguntzaz edota soka edo lazoak erabiliz eta ertzak lotuz.

BALIABIDEAK

Jarduera hau burutzeko baliatuko ditugunak:

- Aurreko urteetako petoak (izatekotan).
- Petoaren fotokopia Din A-4 tamainara handituta (ikus hurrengo orrialdea)
- Margoak
- Artaziak
- Kate-orratzak
- Soka, lazoa edo antzekoa.







PETOA
10-12 URTE

EMAN
EUSKARA
ELKARRI



PETOA
10-12 URTE

EUSKARAZ BIZI

ikastolenelkartea

18.korrika

EMAN
EUSKARA
ELKARRI

KORRIKA TXIKIA

SARRERA

KORRIKA TXIKIA herritik KORRIKA 18 pasatzen den egunean burutzea litzateke egokiena. KORRIKA herritik pasatuko ez balitz, lurraldea hartuko da erreferentzia gisa.

Jarduera hau, lagunartean eta giro alaian egitekoa da;, hortaz, ezinbestekoa da ikasleen arteko kidetzea bultzatzea.

Herri eta zonalde bakoitzean euskaltegiek eman ohi dituzten jarraibideen arabera antolatuko da KORRIKA TXIKIA.



BALIABIDEAK

- Petoa soinean.

- Megafonian KORRIKA 18ko kanta, aurreko urteetako KORRIKA kantak.

Oharra: *KORRIKA 18 eskola-ordutegitik kanpo pasako balitz, animatu ikastetxeko familia eta ikasleak KORRIKA ofizialean parte hartzera.*



IBILBIDEA

MARTXOAK 14, OSTEGUNA

ANDOAIN 16:30:00
ADUNA.........................17:09:30
VILLABONA 17:33:30
IRURA...........................17:46:00
ANOETA 17:59:00
TOLOSA 18:11:00
IBARRA..........................18:43:30
ALEGIA..........................19:07:30
IKAZTEGIETA..................19:52:30
LEGORRETA 20:12:00
ITSASONDO.................20:37:39
ORDIZIA........................20:44:09
ZALDIBIA 21:09:30
LAZKAO 21:34:33
OLABERRIA 22:07:03
IDIAZABAL.....................22:25:30
OLABERRIA 22:38:30
BEASAIN 22:51:30
ORMAIZTEGI 23:49:30

MARTXOAK 15, OSTIRALA

MUTILOA.......................00:07:54
ZERAIN 00:25:54
SEGURA 00:38:30
ZEGAMA.......................01:16:18
ALTSASU........................03:11:30
OLATZAGUTIA 03:40:00
ALTSASU........................03:56:30
URDIAIN........................04:08:30
ITURMENDI...................04:20:30
BAKAIKU 04:26:30
ETXARRI ARANATZ 04:44:30
ARBIZU..........................05:20:30
LAKUNTZA 05:32:30
ARRUAZU 05:44:30
UHARTE ARAKIL 05:56:30
IRAÑETA........................06:14:30
HIRIBERRI 06:38:30
IRURTZUN.....................07:20:30
LEKUNBERRI..................08:46:00
ULTZAMA 11:06:45
BERRIOBEITI 13:00:45
BERRIOZAR 13:23:30
IRUÑEA 13:40:21
ANTSOAIN....................13:48:09
IRUÑEA 13:55:57
BURLATA........................14:09:36
ATARRABIA 14:22:36
IRUÑEA 14:36:54
ZIZUR 16:39:36
ZIZUR NAGUSIA 16:44:24
IRUÑEA 17:08:48
ORKOIEN.......................18:16:30
ETXAURI 19:18:15
MURUGARREN...............22:16:00
LIZARRA.........................22:40:00
VILLATUERTA..................23:31:00

MARTXOAK 16, LARUNBATA

ZIRAUKI.........................00:42:39
MAÑERU 00:58:15
GARES 01:21:39
OBANOS 01:40:51
ENERITZ 02:16:51
BIURRUN-OLKOTZ 02:51:39
TEBAS 03:19:51
URROTZ........................05:19:51
AGOITZ.........................06:01:51
AURITZ 09:07:51
ORREAGA 09:19:51
LUZAIDE 11:08:21
ARNEGI.........................11:27:51
DONIBANE GARAZI.......12:17:51
MAULE 17:02:21
DONAPALEU.................19:40:51
HAZPARNE 22:55:21

MARTXOAK 17, IGANDEA

ITSASU 00:17:21
KANBO 00:43:21
UZTARITZE 01:50:21
EZPELETA 02:50:21
AINHOA 03:26:21

EUSKARAZ BIZI
ikastolenelkartea
aek 18.korrika
EMAN EUSKARA ELKARRI

IBILBIDEA

SARA 04:20:21
BERA 04:50:21
LESAKA 05:49:09
ETXALAR 06:00:33
IGANTZI 06:12:33
SUNBILLA 06:35:57
DONEZTEBE 07:26:57
LEGASA.........................07:44:57
ORONOZ.......................08:02:57
ARRAIOZ 08:25:45
ELIZONDO 08:54:33
ESTERIBAR 11:06:33
ZILBETI..........................13:38:42
AURIZBERRI...................15:14:12
GARRALDA 15:58:12
ARIBE 16:24:12
GARAIOA......................16:37:12
ABAURREPEA 17:03:12
ABAURREGAINA 17:29:12
JAURRIETA 18:19:12
EZKAROZE 18:49:12
OTSAGABIA 19:07:12
ITZALTZU 19:25:12
UZTARROZE 21:01:12
IZABA 21:25:12
URZAINKI 21:49:12
ERRONKARI 22:07:12
BURGI 23:07:12

MARTXOAK 18, ASTELEHENA

NABASKOZE 00:37:12
IRUNBERRI 02:42:36
LEDEA 03:42:36
ZANGOZA 04:12:36
OIBAR 05:36:36
ESLABA 06:06:36
LERGA..........................06:30:00
SAN MARTIN UNX 07:22:48
TAFALLA.......................08:22:48
MIRANDA ARGA...........10:07:54
FALTZES 12:08:24
CAPARROSO 14:07:39
VALTIERRA.....................16:04:06
ARGUEDAS...................16:35:36
TUTERA 18:03:36
CINTRUENIGO..............19:58:33
CASTEJON 21:26:33
CADREITA.....................22:23:03
MILAGRO 23:14:03

MARTXOAK 19, ASTEARTEA

AZAGRA 00:35:33
SAN ADRIAN................01:11:33
SARTAGUDA.................02:35:33
LODOSA 03:59:33
SESMA 05:05:33
LOS ARCOS..................06:11:33
MUES 06:47:33
KANPEZU 08:40:15
MAEZTU 10:00:21
DULANTZI.....................11:45:48
AGURAIN 13:30:24
ZALDUONDO 14:26:24
ARAIA 14:51:54
GASTEIZ 18:45:00

MARTXOAK 20, ASTEAZKENA

TREBIÑU 00:40:15
ARGANTZUN.................01:44:15
KOARTANGO 03:41:03
URDUÑA 06:03:57
AMURRIO 07:04:03
ZIGOITIA 10:09:27
OTXANDIO...................11:58:57
ABADIÑO.....................13:00:21
MAÑARIA.....................13:34:48
IZURTZA 14:12:48
DURANGO 14:24:49
IURRETA........................14:52:33
DURANGO 15:01:19
ABADIÑO.....................15:11:24
ATXONDO....................15:46:10
ELORRIO.......................16:02:25
BERRIZ..........................16:53:25

IBILBIDEA

ZALDIBAR	17:19:52
MALLABIA	17:43:16
ERMUA	18:05:46
EIBAR	18:30:25
SORALUZE	19:28:55
ELGOIBAR	20:27:25
AZKOITIA	21:46:40
AZPEITIA	22:10:04
AZKOITIA	22:39:07

MARXOAK 21, OSTEGUNA

BERGARA	00:41:52
URRETXU	01:47:49
ZUMARRAGA	02:07:01
LEGAZPI	02:50:46
OÑATI	04:22:49
ARRASATE	05:40:49
ARETXABALETA	06:06:49
ESKORIATZA	06:26:19
LEINTZ GATZAGA	07:17:49
LEGUTIO	08:18:16
UBIDE	09:07:16
ZEANURI	10:35:10
AREATZA	11:09:55
ARTEAGA	11:27:40
ARANTZAZU	11:59:31
IGORRE	12:07:19
DIMA	12:13:49
IGORRE	12:43:43
LEMOA	13:11:01
ZORNOTZA	13:47:58
LARRABETZU	14:42:52
LEZAMA	15:25:07
ZAMUDIO	15:48:31
DERIO	16:09:31
LOIU	16:36:31
SONDIKA	16:46:16
ERANDIO	17:13:34
BILBO	17:37:37
ETXEBARRI	21:57:37
GALDAKAO	22:17:07
ZARATAMO	23:02:37
BASAURI	23:15:37

MARTXOAK 22, OSTIRALA

ARRIGORRIAGA	00:33:37
UGAO	01:06:07
ARRANKUDIAGA	01:25:37
ARAKALDO	01:52:13
LAUDIO	02:06:13
OKONDO	03:16:13
GORDEXOLA	03:23:13
GUEÑES	03:33:43
ZALLA	03:47:43
BALMASEDA	04:36:43
ZALLA	04:56:13
SOPUERTA	05:41:43
GALDAMES	06:27:13
MUSKIZ	06:40:13
ABANTO	07:25:43
ORTUELLA	08:11:13
TRAPAGARAN	08:43:43
PORTUGALETE	09:22:43
SANTURTZI	09:33:13
PORTUGALETE	10:11:01
SESTAO	10:37:40
BARAKALDO	10:57:49
ERANDIO	12:15:49
LEIOA	13:01:19
ERROMO	13:33:49
ALGORTA	14:00:28
BERANGO	14:55:43
SOPELA	15:16:43
BARRIKA	15:54:31
PLENTZIA	16:18:19
GORLIZ	16:42:49
URDULIZ	17:15:19
LAUKIZ	17:34:49
GATIKA	18:07:19
MUNGIA	18:33:19
BAKIO	19:53:49
BERMEO	20:46:19
MUNDAKA	21:33:19
SUKARRIETA	21:59:19
BUSTURIA	22:05:49
MURUETA	22:25:19

IBILBIDEA

FORUA 22:44:49
GERNIKA.......................22:57:49
KORTEZUBI 23:43:19


MARTXOAK 23, LARUNBATA

IBARRANGELU 00:39:19
ELANTXOBE 01:07:19
IBARRANGELU 01:21:19
EA...............................01:35:19
ISPASTER 02:33:49
LEKEITIO 03:06:19
GIZABURUAGA.............04:21:49
AULESTI 04:49:49
MUNITIBAR 05:30:49
ZIORTZA-BOLIBAR 06:04:37
MARKINA-XEMEIN 06:37:07
BERRIATUA....................07:25:10

ONDARROA 07:46:10
MUTRIKU 09:05:49
DEBA 09:18:49
ZESTOA 11:09:19
ZUMAIA 12:32:07
GETARIA........................13:31:37
ZARAUTZ.......................14:06:54
ORIO 15:01:30
USURBIL.........................16:32:51
LASARTE 17:09:15
HERNANI 18:35:33
ASTIGARRAGA 19:20:18
DONOSTIA...................19:40:15
PASAI ANTXO 23:31:25
PASAI SAN PEDRO 00:07:28
PASAI DONIBANE 00:16:28

MARTXOAK 24, IGANDEA

LEZO 00:31:31
ERRENTERIA..................00:45:52
OIARTZUN....................01:27:10
HONDARRIBIA 03:06:25
IRUN 03:45:25
HENDAIA 04:11:25
URRUÑA.......................05:16:25
DONIBANE LOHIZUNE...05:57:55
AZKAINE 06:46:55
SENPERE 07:42:55
ARBONA 08:52:55
BIARRITZ 09:48:55
ANGELU.......................10:30:55
BAIONA 11:12:55
BUKAERA 12.29.55



IBILBIDEA
10-12 URTE

